

Noaia !!



Berritua dator Eskulagintza
Azoka eta Erakusketa



Elhuyar,
30 urte eta aurrera begira

Usurbilgo Nekazal Produktuak


*Txit Baserria Gure Herriko
Ondare zaharra degonez*

*Baserriarra - Nekazaria
Natura Mitiale denez*

*Zaindo ditzagon bizi bai dira
Beraiek sortutakoak*

*Bai barazkiak fruitu ta okelak
edo hauen barietatez*

*Gure Kultura ta elikaduran
onbehar ta osasunez*



EROSI



HERRIKO



NEKAZAL




PRODUKTUAK

- ARBURU baserria. Tel.: 943 37 23 95
Behi esnea
- ALTZONDO-ESNAOLA. Tel.: 943 36 10 60
Txekorrak
- BERRITZAGOIENA baserria. Tel.: 943 37 28 28
Txekorrak
- GILDAGORRI baserria. Tel.: 943 36 06 39
Txekorrak, piperra, babarruna, ilarra, baina
- IARBE baserria. Tel.: 943 37 12 93
Behi esnea
- IBAROLA TXIIO baserria. Tel.: 943 36 30 07
Behi esnea
- IGARTZAZABAL baserria. Tel.: 943 37 00 63
Arkumeak eta ardi esnea
- OLARRI baserria. Tel.: 943 37 09 63
Txekorrak
- TROIA baserria. Tel.: 943 36 22 86
Behi esnea
- ETXETXO baserria. Tel.: 943 37 24 05
Behi esnea eta loreak
- OLAIZOLA barazkiak.
Porrua, letxuga, ilarra, azalorea
- URTINEA baserria. Tel.: 943 38 22 55
Loreak
- ARANBURU negutagia. Tel.: 943 36 64 60
Loreak eta landareak
- LARTZANDIETA baserria. Tel.: 943 37 40 98
Ollaskoak eta eztia
- SARI baserria. Tel.: 943 36 60 61
Barazkiak
- INAKI LABAIEI. Tel.: 943 37 15 90
Ibarrako piperrak
- OSTATU baserria. Tel.: 943 37 33 46
Barazkiak eta txerriak

Produktu hauek eros ditzakezu:

- HARATEGIAK: Alkorta, Amuñ, Esnaola, Ramon, Txaparlegi, Imanol Txaparlegi
- BARAZKIAK: Alkorta, Charter, Oia, Etxe, Esnaola, F. Martin, Lourdes, Ugan-Arriaga

AURKITU
EUROPAKO 10 HIRIBURU



Asmoak burutik kendu ezinda?

Bada, Gaztekutxan aurkituko dugu,
elkarren artean, zure asmoentzako
burubiderik onena.

BADAKIZU, GAZTEKUTXAN
HASTEN DA ZURE ETORKIZUNA



gazte kutxa

www.gaztekutxa.net

Txirrikitutik



Antton Elizegi, 1968-1975,
Zaborraren errausketa-labea Udal fototeka

Ezaguna denez, gaur egun herriko zaborrak San Markosera eramaten dira. Aukera hau hala ere, ez da berri usurbildarrontzat. Izan ere hainbat urtetan zaborrak errausteko labea martxan izan baikenuen herrian bertan, eta ez nolanhikoa alajaina. Labea hilerri berriko sarreraren alboan zegoen; autoak buelta emateko bideak zabalgun bat egiten duen horretantxe hain zuzen.

Zaborrak errausteko labea 1967. urtean eraiki zuen Udalak. Joxe Tolosa, zenbait herritarren laguntzarekin, labea diseinatu zuen. Ez zen erraza sua itzali gabe mantentzea, erraustak labe barrutik ateratzea, kearen eta gasaren eragin kutsakorra gutxitzea... Baina Joxek eta zenbait herritarrek pixkanaka-pixkanaka egindako hobekuntzekin asmatu egin zuten. Eta zaborrak errausteko Usurbilgo labeak ustekabeko sona hartu zuen. Garaiko egunkarietan ere eman zen honen berri, labearen ingeniari-tza lana gorai-patuz. Hala, Joxe batetik bestera ibili omen zen asmakizun honen berri azaltzen. Galiziako Villagarcía de Arosa herrian ere izan omen zen. Nonbait labe bat eraiki behar zutela eta, bertako Udalak Joxeren aholkularitza izateko abioia eta guzti ordaindu omen zion.

Herriko labea 1990. urte inguru arte iraun zuen martxan. Usurbilgo zaborraz gain, Orion bildutakoak ere bertan erretzen ziren. Beti kea zeriola, inoiz ez zen itzaltzen labea. Usaina, kea, arratoiak... leku nardagarria zen. Ondorioz, inguruko baserritarrak kexuka ibili ziren labearen kutsadura zela eta. Beste garai batzuk ziren. Egun, ez ote dago beste konponbide jasangarriagorik?

ZALOA ARNAIZ

fototeka_usurbil@euskalerrria.org

Noaua!!

Argitaratzailea : *Noaua!* Kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea : Imanol Ubeda

Kazetariak: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea: Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea: Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak: Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zalao Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika: Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Asteasuaingo industrialdean dago Elhuyarren egoitza.

Aurkibidea

ZUTABEA, AITZIBER MATXAIN	4. URR.
BERRIEMAILEAK KALEJIRAN	6. URR.
KONTZEJU TXIKIA	10. URR.
Azterketa soziolinguistikoa egiten hasi da Siadeco	
ELHUYAR, FUNDAZIO BIDEAN	12. URR.
ESKULANGINTZA AZOKA	14. URR.
SASOIKO DAUDE KIROLARI GAZTEAK	16. URR.
AQUARIUMEAN BISITAN	18. URR.
ERREMEDIEN TXOKOA	19. URR.
EGUN HAUETARAKO DEIALDIAK	22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



AITZIBER MATXAIN

Ihintza tantak

Kaixo lagunak! Dagoeneko udazken betean gaudela ohartuko zineten! Inguruan nabariak dira hainbat zeinu; zuhaitzak hasiak dira biluzten edo biluztu aurreko kolore bizi-bitxiak azaltzen; gaztain, intxaurrak.. hegoaizeak lagunduta erortzen eta baratza inguruan ere hainbat landarek hil aurreko azkeneko indarrak fruitu eta hazietara bideratuak dituzte; babarrun, kalabaza, artoak..., guretzat erreserba negurako.

Baina udazken honetan bada txunditu nauen beste gauza bat; goizetako ihintza!! Izan ere, orain gutxi irakurritako artikulu batean, Enzo Nastati nekazari homeodinamikoko italiarrak, azken urteo-

tan ihintza desagertzen ari dela dio, eta hau landareentzat beharrezkoa dela, guretzat amestea beste. Gu gaueko ametsen bidez mundu inkoszientearekin harremanetan jartzen gara, hau beharrezkoa dugu, hil egingo ginatete bestela. Landareak berriz, ispilu esferiko moduko tanta hauek, planetekin harremanetan jartzeko ditu nahitaezko.

Zuetako inor konturatu edo arduratu al da inoiz honetaz? Ez dut uste, izan ere naturarekin harremana galdu egin dugu eta berau entzuten ahaztu.

Naturaren legeak ulertu eta honekin lan egin beharrean, guk asmatutako ingurura behartzen

dugu (adibidez: negutegi barruan hidroponikora), eta naturaren legeak gureez ordezkatzeko saiatu (lur naturala/ sustrato artifizialak, ongarrri kimikoak...erabiliz). Natura etengabe berezko orekara bueltatzen saiatzen da, honetarako bere tresnak erabiliz (izurriteak, gaitzak.....), baina guk beste "ekilibrio" bat bilatzen dugu, horretarako beharrezko iruditzen zaiguna eginez (tratamentuak...).

Nolako fruituak ari ote gara lortzen honela?

Itxuraz, antzekoak.

Ihintz tantak gertuagotik begiratzen hastea ez litzateke pausu makala izango! Bidaia on guztioi!

Ika mika



Aralar, alderdi berriaren aurkezpena

Dagoeneko entzuna izango duzue badela Ezker Abertzalean kokatzen den erakunde politiko berri bat: Aralar.

Ekainean burutu genuen Lehen Kongresua. Bertan Independentzia eta Sozialismoa hartu genituen helburu nagusizat. Bi helburu horiek lortzeko bidean, Aralarrek pentsaera desberdina dutenen topaleku izan nahi du, non gazteek eta ez hain gazteek aire freskoa aurkituko dugun. Horrelako alderdia izatea da gure helburua.

Aralar lau herrialdetara mugatuko

da. Horrek ez du Iparraldeaz ahazten garenik esan nahi, baizik beraiek direla euren proiektuarekin aurrera egin behar dutenak. Aralar eta Abertzaleen Batasunak harreman estua dute jadanik.

Bide luzea dugu Abertzale eta Ezkertiarrok aurretik, Espainia eta Frantzia ezer gutxi emateko prest baitaude. Gure herrian horren froga gordinna izan dugu azken atxiloketekin. Baina, bestalde, gure etorkizuna lana eginez jorratuko dugula ere garbi daukagu. Badago bai, zer egina.

Hobeto ezagutu nahi bagaituzu, berriz, baduzu aukera, bai Usurbilgo Udal Pleno Aretoan urriaren 30ean 19:30ean egingo den aurkezpen-hitzaldira etorri (Juan Martin Elexpuru, Zuzendaritza Batzordeko kidea, eta, Patxi Zabaleta, Koordinatzaile Orokorra, izango ditugu bertan), www.aralar.net ataritik sartuz eta/edo sinatzaileongana hurbilduz.

Lontxo Zubiria Kamino
Eustakio Arrojeria Eguzkiza

Ika mika



Kaixo bikote!

Har ezazue ezer baino lehen besarkada bero bana zuen lagunaren partetik. Ez dakigu idatzi hau irakurriko ote duzuen. Ailegatuko ote zaizue Noaua! hau! Hala ere, espero dugu ondo izango zaretela. Orain arte izan dituzuen bisitetatik nahiko albiste onak iritsi zaizkigu; kirola egiten hasi behar omen duzue, Oihanak aerobika eta Jokin korrika egiten hasi behar omen duzu! Hau gutxi balitz, gainera, ikasten ere hasi behar omen duzue, ...baina, albiste mingotsak ere iritsi zaizkigu, Jokin Aranjuezera trasladatu baitzaituzte. Modulo ezberdinetan egon arren, sikiera espetxe berdinean zendezten, eta bie bisitak egiteko erreztasuna, ...baina, akabo. Ezin izan dugu egoera hau aprobetxatu ere egin! 25 egun igaro dira, guretzat denbora luzea ez dugula elkar ikusten, eta desiatzen gaude momentu hori noiz iritsiko den.

Zaila da zuen atxiloketari buruz idaztea; batez ere, bi lagun handi gure artetik eraman dituztenean, batez ere, oraindik zauria sendatu gabe dugunean eta, batez ere, dakigunean ez dela ametsgaizto bat izan, baizik eta, tamalez, gure herri honetan behin eta berriz errepikatzen den gertakizun triste eta mingarri bat izan denean.

Kilometro askotara urrundu eta sakabanatu zaituzte, gure arteko kontaktu fisikoa apurtu dute, gure herrian bertan borrokatzeko aukera zapuztu dizuete, ezin dugu guk nahi adina aldiz joan zuek bisitatzen. Baina, badugu orain, lagun bezala, borroka honetako kide bezala, herri bezala, zeregin garrantzitsu bat betetzeko: idatzi, informazioa bidali, liburuak oparitu, bisitara joan, ...azken finean, gure maitasuna, elkartasuna eta presentzia helarazi. Era honetara, kilometro zenbakietan egiazkoa den urruntasun hori apurtu eta herriko edozein tabernetan elkarrekin kontu-kontari arituko ginakene unean bilakatuko dugu, etsaien desioa egi bihur ez dadin.

Egun latzak izan dira guztiontzako. Auskalo zenbat sentimendu batera nahasturik gure baitan: inpotentzia, izua,

malaostia, maitasuna, kezka, harridura... eta ezin korapiloa askatu. Ezin guztiei irtenbiderik bilatu. Zuen etxe aurrean alde batetik bestera harro, legearen babesean, zebiltzan txakur putaseme horien aurrean inpotentzia ikaragarri, baina, han egon ginen zuei gure elkartasun handiena eskaintzeko asmoz. Bakarrik ez zaudetela nolabait adierazteko. Herri hau zuekin dagoela esateko. Eta herriak hala adierazi du, bai egun horretan, baita aste osoan zehar egindako protestaldietan ere.

Herri honen askatasunaren alde bakoitzak daki zein den bere konpromiso maila. Zuek bide bat hartu zenuten, nahiz eta jakin aukera horren orbaina zein izan zitekeen: familiazko momentu gozoak, poz uneak, lagunekin, kideekin egoteko momentuak galtzeko arriskua. Hala ere, determinazioz eta, seguru, oso ondo hausnartuta, aurrera egin duzue. Harro gaude zuen lagun izateaz, zorionekoak gu, urte guzti hauean elkarrekin pasatzeko aukera izan dugulako! Eta pasatzeko dauzkagunak, ... Aitzagako afariak, txozna batzordeko gau zoro horiek, Hernaniko parrandak, pendiente geratzen diren despedidak, zuen bion arteko liskar xebreak, Jokinen ipurdi ikutuak... Konta ezinak!

Oihana, ez pentsa zure urtebetetze egunaz ahaztu garenik. Zorionak eta muxu handi, handi, handi, handi... eta besarkada amaigabe bat! Zuri ere berdin Jokin! Ez burua makurtu ez funtzionarioen ezta inorren aurren ere, eutsi gogor lagunok!

Gure eskutitz honek sistema errepresibo honen aurkako salaketa ere izan nahi du; gure elkartasunaren adierazle bai zuekin bai euskal presoekin kolektibo osoarekin ere. Animo!

Maite zaituztegu !

Jo ta ke irabazi arte!

Euskal Presoak etxera!

Zuen kuadrila

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Sagarra biltzeko garaia

Hego haizeak eta ehiztariek usotan ateratzen duten zaratak adirazten digu garbi udazkena ailegatu zaigula.

Urte sasoi honetan, beste protagonista nagusia sagardoa izaten da. Baserritarrak azken egunetan bere sagarrondoak moildu eta kixkia erabiliz sagarrak biltzen jardun dira. Lehen sagardoa baserri askotan egiten ba zen, etxerako alegia, orain berriz, gutxi batzuetan mantentzen dute ohitura hori, gehienek sagardogietara eramaten dute. Gure auzoan Illunbe sagardotegiak erosten ditu inguruko sagar kopuru handinak. Bildutako sagarrak jotzen hasiak dira dagoeneko, eta tolareak jarri dituzte lanean hemendik hiru hilebetara zuku gozo hori denok dasta dezagun.

Beti entzun izan dugu euri urtea sagar urtea izaten dela, aurten ura nahikoa izan dugunez uzta oso ona izan dugu, azken urtetako onena.



Eguraldi txarrak zerbait ona beharko zuen ba! Aurten kiloko 0,24 euro (36,6 pezeta) ordainduko omen dizkiete baserritarrei (Sagardogileen Elkarteak jarritako prezioa). Lehen esan bezala San Sebastianetan inguru ikusi beharko dugu zer nolako sagardoa datorren aurten. Ederra etor dadila, denok gozatzeko.

Zuberoa eta Usurbil anaikidetuz

IÑAKI
AGIRRESAROBE

Kaleberri

Urtero legez, urria aldean hasten den bertso eskolako ikasturtea aurten ere abian da. Asteazkenero biltzen jarraitzen badu ere, aurtengoan Txaramuntoko egoitzetan hasi da euskaltegiaren alboan hain zuzen ere. 20:30etan izaten da ordua eta herriko bertso eskola bada ere kanpotarrek dute nagusitasuna, aspaldiko honetan ohi den bezala.

Bestalde, joan den igandean herriko barazki, behiki eta txerriekin egindako azokan jende andana bildu zen eguraldi ezin hobea aprobetxaturik. Banatzen ziren zizka-mizkak ongi aprobetxaturik sabela ongi bete zuen. Aipagarriena urte osoan herriko dendetan ere salgai egoten direla eta herritartasuna aldarrikatzeko balio zezala behintzat.

Amaitzeko, usurbildar talde batek zuberotarekin duten hartu emana aprobetxaturik, azaroaren 2an Urdiriñarbera doazela esan behar. Pilotari gazteekin batera sukaldari eta guzti

doaz. Han larunbat aldean trinketean bi herrien arteko pilota partida jokatu ostean lagunarteko afariarekin amaituko da festa. Senidetasun horrek luzaroan jarrai dezala.



Hontzak Kalezarren

Kaixo Noaua!ko irakurle guztioi. Lehenik eta begin agurtu egingen naiz Kalezarreko kronika idazten dudan lehenengo aldia baita Noaua!ko 145. ale honetan.



Urteak joan urteak etorri, hontzak direla eta mojak haserre daude Kalezarren. Gauetan udaberri, uda eta udazken partean sumatu ohi dira hontzak mojen konbentuan, bertatik igaro besterik ez du egin behar hontzen hotsa entzun nahi duen orok. Mojak haserre daudela diot, hotsa ez baita batere atsegina, “zurrunka” antzeko hots arraro bat da eta ateratzen duen soinu hori dela eta, hontzaren antzeko beste animalia bat dela dio jendeak.

Lehen esan bezala, urteak daramatzate hontza

hauek joan eta etorri, neguan ez dira sumatzen eta udan berriz gauetan kalezartarrok beraien kantuak entzuteko aukera izaten dugu eta zer esan ez mojetxe alboan bizi garenok.

Matxaindarraren etxea ere bukatzeaz dagoela esan behar, jada itxura ederra du eta. Martxa honetan Kalezarrek “burgesez auzo” itxura hartuko du, geroz eta etxe ederragoak eraikitzen ari baitira.

Esan ere, Gizakia Helburu (Proyecto Hombre) elkarteak itzultzeaz daudela berriro ere Kalezarrean. Duela urte batzuk ere egon ziren eta esan beharra dago auzotarrak atseginez hartu zituztela beraien jarrera ona zela eta. Harreman on hori aprobetxatuz, berriro ere gure artean izango dira eta lehen bezain egoera ona piztea espero dut.

Beno, irakurle maiteok, lehenengo aldia izateko ondo dagoela iruditzen zait. Beraz, hementxe agurtzen naiz. Nire agurrik beroenarekin, beste bat arte!

Kalezar



**ALOÑA
PULIDO**

Ordu aldaketa

Urria agurtzera goazen egun hauetan badugu lantxo bat gehiago aste bukaera honetarako. Larunbat gauerdian ordulariak ordubetez atzeratu egin beharko ditugu, azken urte hauetan gertatzen den bezala. Nahiz eta guk ez izan oso gustuko, aldaketara moldatu behar!

Bestela ere arratsalde motzak gelditzen diren garai honetan, ordu honen erruz ia-ia ezer gabe gelditzen gara.

Badirudi batzuentzat energia aurreratzea suposatzen duela edo beren interes iturrirako hobeto datorkiela. Dena den, gure iritzien beharrik izaten ez dutenez, nahitanahiez onartu egin behar. Aprobetxa dezagun ordubetez parranda gehiago edo lo gehiago egiteko, “ondo etorriko zaigu”.

Bestalde, auzotarrei dei bat egiteko aprobetxatu nahi nuke tarte hau. Azken aldian oso jende gutxi gaude Atxegalden kronikak idazteko eta jende berria animatzea nahi genduke lan honetarako. Gazte, heldu edo adineko izan, berdin zaigu.

Gauza da tartekatuago idatzi nahi dugula, eta zenbat eta jende gehiago orduan eta iritzi eta kontu berri gehiago. Irakurtzeko ere, erakargarriagoa eta atsegina da aurpegi ezberdinak ikustea. Ez al zaizue iruditzen?

Borondatea jarri ezker, dena lortzen da. Beraz, animo denoi! Noaua! ere berritua azaldu zaigu udazken honetan eta beste auzoetan ere jende berria sartu zaigu “lanerako”.

Gu ere saiatuko gara, ezta?



Atxegalde



**JONE
EIZMENDI**



ISAAK MUÑOZ

Santutenea

Lorategiak edo sasitokiak?

Denok dakigu gure auzoak bi alde ezberdin dituela. Bata, zubitik begiratura, bideren ezker aldean gelditzen dena; eta bestea, berriz, bidearen eskubi aldean gelditzen dena. Ezker aldean gelditzen den aldea, etxe zaharragoak dituena da eta eskubi aldean daudenak etxe zaharrak izan arren, besteak baino berriagoak dira.

Etxe zaharragoak dituen aldeak ez ditu lorategi asko baina lorategi haien egoera nahikoa kaskarra da. Egia esan, ni orain arte ez nintzen konturatu baina lehengoan auzokide batzuk entzun nituen gai honetaz berrikeretan eta kezatzan. Horregatik erabaki nuen lorategiak begiratu eta aztertzea. Auzokideek arrazoi guztia zutela konturatu nintzen. Hala lortu nuen kronika idazteko gai berria!

Ezker aldean, batetik laura eta hogeita hirutik hogeita zazpira dihoazten etxebizitzak daude eta laukote eta boskote hauen artean dago lorategi handiena. Lorategi hau penagarri dago, sasiengatik gehien bat eta nabaritzen da inork ez duela zaindu.

Hala ere, hau ez da gaizki dagoen lorategi bakarra. Lehenengo etxe multzoaren atzean (1-4) geratzen diren lorategiak ere oso itxura eskasa dute. Esan beharra daukat nik ez ditudala lorategi guztiak ikusi baina animatzen zaituztet nik esandakoak behintzat ikustera joatea.

Gainera, ikus daiteke ere hau dena ez dela oraingo gauza. Aspalditik daude horrela eta azpimarratu behar dut ere zabor-poltsak uzteko lekua, iturria eta abar ez daudela zainduta.

Bestalde, onean esan beharra dago –eta denok ikus dezakegu– bide bazterrak horiz pintatu dituztela. Egia esan, beharra ere bazegoen lehen ikusi ere ez zirelako egiten.



Elizaren berritze lanak



EIDER JAUREGI

Urdaiaga

Azken urteetan San Estebango elizan berritze lanak geldi ezinak dirudite. Hasi teilatutik eta elizaren barrukalde osoa berritu zuten orain urte asko ez direla. Lehengo urtean kanpandorreko kanpaia eta ordulari berria jarri zituzten eta orain berriz ikus dezakegunez kanpoaldeko itsura aldatzeko lanetan ari dira.

Lehen atzekalde babesteko uralita zatiak zeuden, ba orain kendu egin dituzte eta elizako parteak duen harria aprobetxatuz atzekalde guztia aldatzen ari dira. Ez du lehen zegoenarekin zer ikusirik. Itxuraldaketa benetan ikusgarria da.

Beraz, bertaratu nahi duzuenok badakizue, udazkeneko arratsalde on bat aprobetxatuz bueltaxka bat eman eta zeuen begiez gozatzeko aukera izango duzue.

Urriaren loredendan ere ez dute lan faltik izaten. Santu Guztien eguna datorrela eta lore mordo prestatu beharko dute loredendako langileek. Seguru ez direla egun motzak egingo prestakizun egun hauek.



Aupa gazteak

Aurten aste bukaera bakarra izan dugu eta Abukatu dira gure San Praixku jaiak. Meza nagusia ederra izen zen. Sei apaiz bildu ziren aldrean, Lizaso eta Etxeberria bertotan... gainera jende asko etorri zen. Eliz barrua, gainera, oso dotore jarria zegoen eta zorionak eman nahi dizkiet hori posible egiten duzuen guztiei.

Oilasko biltzaileak goizeko 7.30etan etorri ziren gure etxera. Dantza saioa egin eta aurrera beste baserri batera. Aurten gainera, taldea ugarriagoa zen. Orioko bi neska ere ikusi nituen laguntzaile lanetan. Aurrera gazteok lehengo ohitura zaharrekin eta on egin dizuela afariak.

Mus txapelketan, berriz, giroa pil-pilean izan zen eta azkenean Alvaro Bruño eta Pako Orbegozo izan ziren txapelaren irabazleak. Sokatira ikustera ere jende asko etorri zen igandean. Hiru talde aurkeztu ziren plazara: Aginagako Kirol Elkarte, Goitarrak eta



Gazteak. Goitarrak eraman zuten saria baina aipatzekoa da Gazteak taldeak erakutsi zuen indarra eta nagusitasuna. Beraien poza merezi duzue.

Azkenik, zorionak talde guztiei meritu handia daukalako festa giroa pizteko egiten duzue sakrifizioa.

Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Kirol kontuak

Errebote txapelketaren finala jokatu zen igandean Billabonako plazan. Azken partidu honetarako Iparraldeko bi talde sailkatu ziren: Donibane Lohitzune eta Hazparne. Donibane Lohitzuneko taldean pilotari gazte eta maila oso onekoak daude; Hazparnen, berriz, eskarmentu handiko pilotariak ari dira. Partidu gogorra jokatu zuten eta azkenean esperientzia nagusi: Hazparnekoek lortu zuten txapela, 13-7 irabazita.

Goraipatzekoa da txapelketa horretan zubietarrek egin duten lana. Nahiz sailkapen-fasean oso talde gogorra egokitu zitzairen, finalerdietara sailkatzea lortu zuten, eta finalerdia txapel-dunen aurka galdu zuten. Ez da meritu makala. Zorionak, beraz, bai txapeldunei, bai Zubietako pilotari eta antolatzaileei.

Kirol kontuekin jarraituz, datorren igandean, urriak 27, Ostadar elkarteak antolatzen duen urteroko krosa Zubietatik barrena pasako da. Goizeko 10:30ean iritsiko da lasterketa-burua

Zubietara, eta azken korrikalaria 11:30ak alde-ra pasako dela espero da. Krosak irauten duen bitartean hipodromo alderako bidea moztuta egongo da. Zubietatik atera nahi duenak Aliriko zubitik izango du aukera. Badakigu zubietar taldetxo bat bizi-bizi ari dela kros horretarako prestatzen. Zubietarren animoak ez ahal zaizkie igandean faltako gure ordezkariei!



Zubietara



**XABIER
ARREGI**

Jada abian da azterketa soziolinguistikoa



AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOAREN BITARTEZ, EUSKARAK EGUN BIZI DUEN EGOERA EZAGUTU NAHI DU UDALAK. BIDE BATEZ, EGOERA HORI HOBETZEKO PROIEKTU BERRI BATI EGIN NAHI DIO. HELBURU HORIEK BETE ASMOZ, LANEAN JARRI DU SIADECO IKERKETA ELKARTEA.

Esan bezala, jada lanean dira Siadeco enpresako lagunak. Hasiere batean, gaur egungo egoeraren diagnostia egin nahi du udalak. Informazio bilketa fase hori martxan da. Eta guztion parte hartzea eta inplikazioa oso garrantzitsua da. Beraz, inkesta bat egiteko deia jasozten baduzu, ez larritu. Seguraski Siadecokoak izango dira-eta.

Hizpide dugun azterketa soziolinguistikoa lau helburu nagusi ditu:

- Usurbilen euskarak bizi duen egoeraren azterketa sakona burutzea eta horretarako hizkuntza baten osasun egoera nolakoa den adierazten duten aldagai desberdinak neurtuko dira: eza-guera, erabilera maila, euskararekiko motibazioa, hizkuntzaren transmisioa eta ikasketa prozesua, udalerriko paisaia linguistikoa euskararen presentzia,...

- Usurbilgo hizkuntz errealitate horrek erakusten dituen hutsuneei aurre egin eta sortzen diren aukera berriak aprobetxatu ahal izateko, Usurbilgo herriarentzako hizkuntz lehentasun estrategikoak definitzea. Lehentasuneko lan ardatzak finkatuko dira, lan ardatz bakoitzak linguistikoki duen lehentasuna, eskatzen dituen bitartekoak eta espero daitezkeen emaitzak kontuan hartuta.

- Hirugarren helburua. berriz, euskararen normalizatorako lehentasuneko ardatz estrategiko horiek inplementatzeko Usurbilgo Udalaren jardunbidera-



ORAINDIK BADIHA GAZTELANIA HUTSEAN EGINIKO TXARTELAK. HORI ERE ZUZENDU NAHI DA AZTERKETA HONEKIN.

ko plangintza eta 2002-2006 gestio-plana zehaztea izango da. Gestio plan horrek Usurbilgo Udaleko Sail desberdinek dituzten egitekoak kontuan hartu eta hizkuntza normalizazio prozesua era transbertsanean planteatzeko ikuspegia rekin landuko da.

600 ETXEBIZITZAKO KIDEEN INFORMAZIOA BILDU NAHI DIRA. HORI BAI, JASOTAKO DATUAK GUZTIZ ANONIMOAK IZANGO DIRA

- Azken helburua, azterketa soziolinguistikoa egiteko prozesua bera, herriko gizarte eragileen dinamizatzaile gertatzea izango da. Izan ere, prozesuak normalizazioan lanean ari diren eragileekiko trinkotze prozesua elikatu eta sakontzea eskatuko du, koordinazioarako

marko komun bat eskaini beharko duelarik.

Siadeco eta Udalaren proiektua jada abian da. Informazio bilketa izango da aste hauetako zeregin nagusia. Hasteko, Usurbilgo paisaia linguistikoa neurketa zehatza burutuko da. Neurketa honek herri osoko kale, auzo eta industrialdeetan dauden kartel, errotulu eta bestelako idazkiak (bide seinaleak, publizitate euskarriak, merkataritza establezimendu eta lantokietako errotuluak,...) zein hizkuntzatan jarriak dauden jasoko du.

Honekin batera hasiak dira telefono bidezko inkesta egiten. Guztira 600 etxebizitzatako kideen informazioa jaso nahi da (etxebizitza horien aukeraketa zozketa bidez burutu da). Siadecok aditza eman duenez, datuak guztiz anonimokoak izango dira eta emaitzak euskararen inguruko estatistika orokorrak ateratzeko bakarrik erabiliko dira.

Baina hor ez dira lehen fase honen lanak amaituko. Azterketa sakonagoa izan dadin, Siadecok Usurbilgo hizkuntza egoera ezagutzen duten herritarrekin eta euskararen inguruko eragileekin bilduko da.

Telefono bidez burutuko den inkestetan eta egingo diren bilera zein elkarrizketetan herritarren parte hartzea eta inplikazioa oso garrantzitsuak dira aipatu helburuak lortzeko.

Udal funtzionarien hauteskundeetan LAB nagusi

Urriaren 9a ez zen ohiko lan eguna izan udaletxe-ko langileentzat. Eguneroko zereginekin batera bozka emateko aukera ere bazuten. Bozka gutxi batzuegatik bada ere, LAB izango da datozen lau urteotan funtzionarien pertsonal zuzendaritza edo junta ordezkatu duena.



URRIAREN 9AN EGIN ZUTEN UDALETXEKO FUNTZIONARIEK BOZKETA. LABORALAK FALTA DIRA DRAIN.

Martxan den hauteskunde sistemaren arabera, bozka gehien duen sindikatua da ordezkari osoa lortzen duena. Emaitzak paretsu egon dira baina LABek bozka gehiago lortu dituzenez, datozen lau urteetan funtzionarien pertsonal zuzendaritza sindikatu honen gidaritzapean egongo da. Emaitzen arabera, hiru langile hauek izan dira ordezkari hautatuak: Aitor Eleta, Begoña Rodriguez eta

Marian Altuna. Hauek izan dira bozka gehien jaso dituzten ordezkariak.

Baina hauteskundeak ez dira amaitu. Laboral izaera duten langileek (aldi baterako kontratatuak, funtzionari ez direnak...) ere laster aukeratu-ko baitituzte euren ordezkariak.

LANPOSTU BERRIAK IZENDATU DIRA

Iñigo Azpiroz Manterola Hirigintzako administrazio laguntzaile izendatu berri dute. Plaza, barne promozio bidez eskuratu du, lehendik ere udal langilea baitzen baina beste izaera bateko kontratua zuen.

2002-2003 ikasturteko ileapainketa sakontze ikastaroa emateko kontratazioa, berriz, dekretuz egin da eta Begoña Otegi Zinkunegi izan da langile hautatua.

Josune Mugika Tolaretxipik, berriz, deialdi irekian eginiko lehiaketa bidez eskuratu du enplegu sustapeneko teknika-ri postua.

UDALAREN WEB GUNEA, AZARORAKO

Udalak dagoeneko oso aurreratuta dauka web gune proiektua. Azaroan jarri nahi da martxan eta udaletxe-ko informazio iturri berrian bilakatuko da. Udal albisteak eta agenda izango dira web gune berriaren ardatz nagusiak. Helbidea hauxe: www.usurbil.net

Galdeiozu!!



BEGOÑA
RODRIGUEZ,
UDAL TEKNIKARIA

BASERRITARREN EGOERA EZ DA BATERE ONA. DENA DEN, UDALAK USURBILGO NEKAZAL PRODUKTUEN ALDEKO EGUN BAT ANTOLATU ZUEN URRIAREN 13AN. AURRERANTZEAN ZER NOLAKO JARRAIPENA EGINGO ZAIE BERTAKO NEKAZARI, ABELTZAIN ETA BASERRITARREI? KANPAINA AMAITU DA ALA BESTELAKO EKITALDIRIK ANTOLATU BEHAR AL DUZUE? USURBILGO HERRITAR BATEK BIDALITAKO GALDERA.

Baserriaren egoera ez dela ona nabarmena da, eta udalak honen aurrean ahaleginetan jarraituko du sektore honetan lanean. Horregatik udal nekazal teknikaria izango da, nekazari, abeltzain eta baserritarrei zerbitzua eskaintzen, ahal dituen arazo puntualak konpondu eta bideratzeko, eta arazo orokorragoak ere bideratu nahian.

Bestalde nekazal produktuaren kanpainaren inguruan, jarraipena ematen ari zaio, salmentan guneetan kartelak eta erosketan poltsak banatuz, Noaua! bitartez publizitatea eginez eta elkarlanean arituz. Aurrerago kanpainaren balorazio bat egin beharko da eta hemendik aurrera produktuaren sustapena nondik segi erabaki beharko da. Behar bada "kalitate ezaugarrietan" edo "ekoizle-konsumitzaile harremanetan" sakondu behar luke hurrengo kanpaina berri batek. Beraz lanean jarraitzeko asmoa eta ilusioa baditugu eta edozein proposamen irekiak gaude.

Bidalizure galdera eta zehaztu nori zuzendua dihoan: Noaua! - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil / noaua.k.e@euskalnet.net

1972tik hona etengabeko hazkuntza izan du Elhuyarrek

Injenieri ikasle batzuen ekime-
nez osatu zen Elhuyar 1972an.
Zientzia alorra euskalduntzeko
xedeak bildu zituen; dena egiteko
zegoen garaian. Geroztik, kultur
elkarte honek euskalgintzari eta zien-
tziaren dibulgazioari egin dion ekar-
pena ezinbestekotzat jo daiteke.
Elhuyar aldizkariko zuzendaria den
Eustakio Arrojeriak eman dizkigu ira-
gana, oraina eta geroari buruzko
xehetasunak.

**Garai zailak ziren duela 30 urteko-
ak. Oraingoak eraginik al dute
Elhuyarren moduko elkarte batean?
Ala sendotuta dagoen aldetik horren
gaintetik al zaudete jada?**

Egindako bideak eta historiak gure
alde daude. Kontrako jarrera asko daude
oraindik. Euskaraz egiten den guztia
lotzen da euskalgintzarekin. Euskal pro-
duktuekin bakarrik identifikatzen gai-
tuzte. Zientziaren dibulgazioa da gure
xede nagusia eta gure lan tresna, komu-
nikazio hizkuntza, euskara da. Baina
iruditzen zaigu euskara berez nahikoa
normalizatu dagoela hizkuntza bezala,
gure zeregina gehiago da zientziaren
dibulgazioa egitea ahal den medio guz-
tietan.

Giroa ez da oso aldekoa, euskal kultu-
rarekin lotuta gaude eta guk hori apurtu
nahian gabilta, enpresa tratamendu
bera jasotzea nahi dugu. Egoera ez da
erraza baina 30 urteko ibilbidean frogatu
dugu gure jarduna txukuna eta kali-


tatezkoa dela, taldea sendoa eta serioa
dela; emaitzak hor daude.

Ni duela 18 urte sartu nintzenen
kontratatuak 5-6 izango ginen. Eta
azken urteotan izugarri hazi gara. 12
urte Usurbilera etorri ginela eta 14 lan-
gile ginen. Gaur 67. Hazkunde izuga-
rria eman dugu. Gure diru iturrien
%80a lehiaketa bidezko dirulaguntzak
ziren eta %20a autofinantziazioa. Eta
orain, alderantziz, %80a da autofinan-
tiazioa. Enpresa normalizatuen kopu-
ruetan gabilta.

**Euskal Herrian militantismoa oso
indartsua izan da. Dena den,
Elhuyarren hazkuntzean ezinbestekoa
izan da profesionalizazioa, ezta?**

Nik uste baietz. Profesionalizatu ez
bagina seguruenik ezinezkoa izango zen
egiten dugun guztia egitea.
Normalizazio ikuspegitik ere, ez dut
uste ona izango zenik.

Garai batean produkzioaren zati
nagusi bat beste lanbideetan zebilen jen-
deak egiten zuen. Militantzia jeisten
joan da profesionalizatzen joan garen



heinean. Hor dago orain gure erronka
handiena. Profesionalizazioak berak ere
ekarri du hori; dena den, izan dugun
ibilbidearengatik zientziaren dibulgazio-



ELHUYAR ALDIZKARIKO ZUZENDARIA DA
EUSTAKIO ARROJERIA.

an ari diren beste agenteak ere bildu
nahi ditugu berriz ere.

**Egoera soziopolitiko asko aldatu
da, baina zientzian ere gauzak asko
aldatu dira.**

Zientziaren inguruko aldaketak eta
proposamenak gertutik jarraitu ditugu.
Une honetan egunero begiratzen ditugu
zein berri publikatzen diren eta horren
dibulgazio lana egiten dugu. Orokorrean
zientziaren ikerkuntzari dagokionez,
informazioa eta dibulgazioa lantzen ditu-
gu. Baina tresneria aldetik aurrerapen
handiak eman dira informatikan, lan
egiteko eran...

WITZAZGA
HERRIKO TABERNA
Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...
Telf. 943 36 02 17

Euskal presoa! etxera!

GALARRAC
GARRAIOA

- * LUR ONGARRIAK
- * ZABOR BILKETA
- * ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Aldizkaria da Elhuyarren ikur nagusia. Webguneak izango al dira noizbait aldizkarien ordezkokoak?

Funtzio ezberdinak dituzte. Informazio iturri bezala Internet tresna egokia dela uste dut. Baina orain arte bezala, aisialdian, patxadaz irakurtzeko aldizkaria bezalakorik ez dago.

Erabiltzailearen ikuspegitik, Internet lan tresna bezala erabiltzen dutenak dira nagusiki. Denborapasan ez dut uste gure atarian sartuko direnik. Beste atari batzuetara joko dute... Dena den, guk Interneten aldeko apostua egin dugu. Hiru atari ditugu zientziaren dibulgazioaren arloan:

www.zientzia.net izenekoa, zientzia gaietara irekita dago. Guk ekoizten dugun gutzia hortxe da. Eguneroko albisteak ere sartzen ditugu, hemeroketa aktuala ere bada.

www.zernola.net izenekoa gaztetxoei

zuzenduriko beste atari bat da, 12-16 urtekoei zuzendua.

Eta hirugarren bat, www.basquerese-arch.com izenekoa. Euskal Herrian ikerketa egiten dutenen direktorioa eta berauek egiten duten ikerketen berri ematen da hiru hizkuntzatan: euskara, ingelesa eta gaztelania.

Aurrera begira, zein da Elhuyarren egitasmo nagusia?

Duela bi urte ikusi genuen 67 langileekin kultur elkarteak egitura horri erantzuteko ez zuela behar besteko baliabiderik. Análisi bat egin genuen eta forma ezberdinak aztertzen aritu gara. Azkenean, fundazioaren egitura juridikoa hartzea erabaki dugu eta azaroaren 29an egingo da aurkezpen ofiziala. Dena den, kultur elkartearen helburu nagusiak –zientziaren dibulgazioa eta euskararen normalizazioa– mantenduko ditugu.

EGOITZA BERRI BATEN BILA

1990. urtetik Usurbilen du egoitza nagusia Elhuyarrek. Espazio faltari erantzun asmoz Asteasuain industrialdera etorri ziren duela 12 urte. Ordurarte Donostia izan zen kultur elkarte honen egoitza.

Baina 1990. urtetik hona Elhuyar etengabe hazi da eta jada txiki gertatu zaie 400 metro karratuko lokala. Beste egoitza baten bila dabilta eta oraindik ezer ez bada zehaztu ere, Elhuyarrekoek Usurbilen jarraitu nahi dute. Zientzia elkarte gure herriarekin identifikatzeaz gain, komunikazio aldetik leku egokian gaudelako jarraitu nahi dute gure artean. Ea hala den.

Andoni Sagarna: “Elhuyar erakunde bikaina da gaur”

Bost lagun ahaletan esker gorpuztu zen 1972an hizpide dugun elkarte. Tartean zen Andoni Sagarna. Hastapenak ezagutu asmoz jo dugu berarengana.

Garai hartako giro soziopolitiko (frankismoaren amaiera) kontuan hartuta, ausardia ere beharko zenuen, ezta?

Giro politikoa guztiz itogarria zen. Bestetik, erronka nagusia zen euskaraz zientzi eta teknologi gaiak erabil zitezkeela frogatzea. Gutako inor ez zen ikastolan ibilia, ikasketa guztiak erdaraz eginak genituen.

Larunbat arratsetan biltzen omen zineten. Nolakoak ziren bilera horiek?

Hogei urtetan segidan bildu ginen larunbatero-larunbatero. Edonor onartzen zen bileretan. Bileretatik aparte, etxean, egiten ziren lanak.

Orain gauzak asko aldatu dira. Nostalgia bai?

Ondo lan egin genuela uste dut. Gaur Elhuyar erakunde bikaina da. Zientzi eta teknologi gaiak eroso erabiltzen ditugu gaur egun. Honek danak poza ematen du, baina nostalgirik ez. Aurrera begira ibili gara beti eta orain

ere bai. Atzera begira geratzen dena gatzeko estatua bihurtzen da, Bibliako Sara bezala.

Elhuyar hain urruti iritsiko ote zela imaginatzen al zenuten?

Ez noski, ez nuen uste horren urruti joango zenik. Hainbat merezimendumota juntatu dira arrakasta hori lortzeko: militantismoaren eskuzabaltasuna, irauteko seta, seriotasuna eta azkenik profesionaltasuna.



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Kalkos kopisteria

- ☞ Fotokopiak
- ☞ Fotokopiak koloretan
- ☞ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☞ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☞ Planoen kopiak (AO arte)
- ☞ Ordenadoreko lanak
- ☞ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ☞ Zure argakia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Tel: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Euskal abereak bilduko ditu Eskulangintza Azokak

ESKULANGINTZARI ESKAINITAKO EGUNA DA HAUXE. EZ DA SOILIK ARTISAU OFIZIO TRADIZIONALEN BILGUNE. ESKULANGINTZAZ ULERTZEN DIREN OFIZIO ETA AFIZIO GUZTIAK BILTZEKO JAIO ZEN ESKULANGINTZA AZOKA ETA ERAKUSTAZOKA. ZORTZIGARREN EDIZIOA IZANGO DA HONAKOA.

Herriko artisauak izan ziren lehen edizioetako protagonista nagusiak. Baina urteen poderioz beste herri batzuetara zabaldu zen azokaren egitasmoa. Urnieta, Hernani, Donostia, Lasarte-Oria... eta inguruko herrietako eskulangintza bildu da azken urteotan. Aurten Bizkaiko zeramika egile bat ere izango da Santu Guztien eguneko hitzorduan.

Ez da ekoizleei zuzenduriko azoka hutsa. Artisautzan zein eskulangintzan dabilzan lagunak dira gonbidatuak. Gehineak beste lanbide batzuetan dabilzanak baina era honetako ofizioak mantentzen saiatzen direnak. Ezti-egileak eta Sagardo Eguneko Lagunak ere bertan izango dira.



NEKAZAL PRODUKTUEN AZOKAN BEZALAXE, ESKULANGINTZA ERAKUSTAZOKAN ERE EUSKAL TXERRIA TOPATUKO DUGU DEMA PLAZAN.

! AURTENGOAN EZ DA IDI-DEMARIK EGINGO !

Aitzaga elkarteak da pilotalekuan eta dema-plazan burutzen den azoka honen antolatzailea. Promozio-leku bada, salerosketa egiteko aukera ere

hortxe da. Horretaz gain, taloa, oilo salda, txorizoa eta zizarra dastatzeko postuak ere jarriko dira.

Dema plazaz abereak jabetuko dira. Baserriko animaliak izango dira nagusi: euskal oiloa, euskal txerria, astoa... Igeldo ondoko partikular bati esker, hegaztiak, antzarrak, ahate mutuak eta emu pare bat ere ikus ahal izango ditugu azoka honetan. Nekazal kooperati-

bak lan-tresnak ekarriko ditu. Loreak ere izango dira eta sagar klase ezberdinak ere bildu nahi ditu Aitzaga elkar-teak.

Aurten idi-demarik ez da egingo baina urte amaitu baino lehen harri haundiari aurre egitekotan da Izeta. Iazko marka hausteko asmoa ere ez du baztertu. Baina hori beste egun batean beharko du izan.

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
IOSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2º. Esk
Usurbil - Gipuzkoa 37 19 54

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkitu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

Kale Nagusia USURBIL
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 10

LABE-GOXO

Euskal Txokoak ere dagoeneko lanean

Egoitza berrian hasi da Kaleberriko Euskal Txokoa. Kaxkoko gaztetxoak Txaramutoko lokal batean biltzen baitira. 35 haurren topaleku da kaxkoko Euskal Txokoa. Baina Santuenean ere bada beste talde bat. 23 ume dira bertan izena eman dutenak. Beraz, guztira, 58 lagun dira Euskal Txokoetan dabilzanak.

Udarregi ikastolak eta Udalak hizpide ditugun talde hauek sortu zituzten duela zazpi bat urte. Asmoa, inguru erdaldunean bizi diren haurrei eskolatik kanpo euskarazko aisialdia ziurtatzea. Hori bai, izena ematerakoan gurasoena izan da beti azken hitza.

Aurreko urteetako dinamika manten-



URRIAREN 14AN HASI ZIREN KALEBERRI ETA SANTUENEAKO EUSKAL TXOKOAK.

duko da: jokuak, eskulanak, bideoak, jolasak... Ainhua Bizkargueneaga eta Itzalai Pikabea dira kaxkoan dauden begiraleak; eta Naiara Arriola, berriz, Santueneako arduraduna.

Jende asko nekazal produktuen egunean



EGURALDI ONAK JENDE ASKO ERAKARRI ZUEN PILOTALEKURA.

Jende asko hurbildu zen Usurbilgo Nekazal Produktuen Azokara. Bertako ekoizleen uzta aurrez aurre ikusteko aukera izateaz gain, dastatzeko ere eman ziren piperra, txorizoa edota sagardoa.

Dena den, nekazaritzan dabilztan baserriar gehiago badira herrian eta beste hainbat ekoizleen stand-ak faltan bota zituen batek baino gehiagok. Datozen edizioetan hori zuzentzen saiatuko direla aiderazi digute udal arduradunek.

GRIPLEAREN KONTRAKO KANPAINA

Urriaren 31ean amaituko da gripearen kontrako txertoa jartzeko kanpaina. 65 urtetik gorakoak, diabetikoak eta gaixo kronikoei zuzendua dago ekimen hau. Osasun zentroan bertan jartzen dira txertoak.

ZUMARTEKO TXISTULARIAK ARGENTINARA

Zumarteko txistulari taldeak Argentinara joateko gonbitea jaso du. Bertan egiten den euskal festa garrantzitsu batean arituko dira herriko txistulariak. Itzuleran beraiekin hitz egiteko aukera izango dugu.

ELKARRIEN HITZALDIA

Elkarrik hitzaldi bat antolatu du urriaren 24an "Egungo egoerari aurre egiteko alternatiba" izenburupean. Hitzaldia Hernaniko Biteri Kultur Etxean izango da 19:30etan. Urriaren 26an amaituko den Bake Konferentziaren azken fasearen informazioa ere eskainiko da.



P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAGA

- Depilazioak
- Aurpegiko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea
Telf: 943 36 28 87

HAUR
JANTZIAK
Sauna

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

Sasoiko daude gure herriko kirolariak

Denboraldia hasi besterik ez da egin eta jada emaitza bikainak eskuratu dituzte herriko kirolari gazteek. Pilotan, esate baterako, Xabier Santxo eta Jokin Irastorza jaun eta jabe izan ziren Irurtzungo Txapelketan, benjamin mailan. Finala Andoainen aurka irabazi zuten.

Usurbilgo Judo K.E.-aren emaitzak ere ikusgarriak izan dira. Azken bi hilabete hauetako txapelketetan fin aritu dira Esteban Arrillaga entrenatzailearen ikasleak.

Valladolideko San Lorenzo Txapelketan itxura ona eman zuen Usurbilgo taldeak eta hiru dominarekin itzuli ziren etxera. Urrezkoak eskuratu zituzten Oihana Blancok (-48 Kg) eta M^a Jose Sardonek (+78 Kg). Vanesa Guevarak (-57 Kg) brontzezkoa erdietsi zuen.

Erreterian egin berri den Euskadiko Txapelketan ere oso ondo aritu dira herriko gazteak. Emaitzak hauexek:



XABIER SANTXOK ETA JOKIN IRASTORZAK ETXERATU ZUTEN IRURTZUNGO PILOTA TXAPELKETA.

19 urte azpikoen mailan, urrea eskuratu zuen Sergio Montesek (+81 Kg). Zilarra lortu zutenak, berriz, Xabier Pagolak (-66 Kg), Zuriñe Polok (-48 Kg) eta Maialen Morak (-63 Kg).

23-azpikoen artean urreak, Iosu Arruti (+100 Kg), Sergio Montes (-90 Kg); Irati Arrutirentzat (+78 Kg) izan ziren. Zilarra, Andoni Aizpuruarentzat (-60 Kg) eta brontzearekin etxeratu zirenak Maialen Mora (-63 Kg) eta Iban Etxaniz (-66 Kg).

Zorionak denoi eta eutsi goiari!

IDI-DEMARIK EZ AZAROAREN 1 EAN

Santu guztien egunean idi-dema egin izan da Eskulagintza Azoka eta Erakusketaren aitzakiarekin. Dena den, aurten ez da idi-demarik izango baina urtea amaitu baino lehen egingo dela esan digute Aitzaga elkarteak kideek.

ANDATZAREN MENDI IBILALDIA URRIAREN 27AN

Bianditz-Mendaur-Arantza mendiak lotuko dituen ibilaldia antolatuko du Andatza KKE taldeak. Urriaren 27ko goizeko 7:00etan irtengo dira frontoi atzetik. Mendi ibilaldiaren iraupena 5-6 ordukoa izango da. Animatu!

OIHANA BLANCO, JUGOSLAVIA ETA ALEMANIAN ZEHAR

Samboko Munduko Junior Txapelketa Jugoslavian egin berri da eta Oihana Blancok zilarrezko domina eskuratu du. Alemaniako junior txapelketan, berriz, brontzea jaso zuen. Puntako kirolarien parean da Oihana, zorionak!

Hurrengo saioak

FUTBOLA

Urriak 27

Emakumezkoen liga: Usurbil FT - Antoniano.
Erregionala 2. maila: Urnieta KE - Usurbil FT.
Kadeteen 2. maila: Axular KKE - Usurbil FT.

Azaroak 3

Emakumezkoen liga: Amaiak Bat - Usurbil FT.
Erregionala 2. maila: Usurbil FT - Munike KT.
Kadeteen 2. maila: Usurbil FT - Hernani B CD.

ARETO-FUTBOLA

Urriak 26

Alebin neskak: San Inazio A - Udarregi A / Udarregi B - Orixe A.
Infantil neskak: Langile Ikastola - Udarregi.
Infantil mutilak: Santa Teresa - Udarregi.



Azaroak 3

Alebin neskak: Udarregi A - Egape B / Egape A - Udarregi B.
Infantil neskak: Herri Ametsa - Udarregi.

PILOTA

Urriak 26

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa. 17:00etatik aurrera, Kadeteak-Antiguo, Jubenilak-Altzatarrak, Seniorrak-Girizia. Goma paletan Andatzpe-Peña Pagola, Hondarribia eta Añorgaren aurka.

Oharra: zure taldeko egutegia hemen ikusi nahi baduzu, pasa zaituz Noaua!ko bulegotik edo bidali e-mail bat helbide honetara: noaua.k.e@euskalnet.net

Kultura hamabostaldia martxan jartzeko prest

Iaz hasitako bideari eutsiz, aurren ere kultura hamabostaldia prestatu dugu azarorako, Noaua! Kultur Elkarte eta Udalaren arteko lankidetzaren bitartez. Azaroaren 8an hasi eta 22a bitarte, mota guztietako ekitaldiak aurkituko dituzu egitarauan; antzerkia, kontzertuak, umeentzako ekintzak, besteak beste.

Esan bezala, beraz, azaroaren 8an emango zaio hasiera kultura hamabostaldiari. Udarregi Ikastolako barne aretoan "Ondo esan beharko" antzerkia ikusteko parada izango dugu. Antzerki hau Ramon Agirrek asmatu, idatzi eta Joserra Senperenarekin batera musikatua izan da.

Hurrengo egunean, eta Udarregitik mugitu gabe, bertsoa izango dugu protagonista nagusia, perkusioaz lagundurik. Izan ere, gaueko 22:30etatik aurrera Karidadeko Benta izeneko ikuskizunaz gozatzeko aukera izango baita.

Karidadeko Benta bertso eta kantuen gauzuloa izan zen duela ehun urte inguru. Mende bateko loaren ondoren, berriro ere izaera bera, baino jantzi berriz agertu zaigu. Bertso berriak jaio zaizkie (Jon Maia taldeko abeslariak jarriak) lehengo zaharrei eta denak aire berriz kantu bihurturik dator berriz ere gaueko zuloetara.

Bestalde, euskal literaturari ere tokitxo bat eskaini diogu egitarauan. Azaroaren 12an "Koloreak euskal usarioan" liburuaren idazle Patziku Perurena koloreek gurean izan duten garrantziaz eta esanahiaz ariko da.

Musikaren txanda izango da hurrengo. Izan ere, azaroaren 15ean Ruper Ordorika izango baitugu kiroldegian. Euskal musikak eman duen rock kantuegilerik garrantzitsueneta-



riko bat dugu Ruper.

Hamabostaldiarekin jarraituz, Kulkik arraunean eta arrantzaleen jolasetan aritzeko aukera eskainiko digu haur eta helduei azaroaren 17an. Ekimen honen helburua parte hartzaileek arrantzaleen arlo ezberdinak ezagutu, praktikatu eta baloratzea izango da.

Bestalde, beste herrialdeetako errealitateak ere gurera ekarri nahi izan ditugu, Nikaraguakoa zehazki. HONEK GKEak diaporama, mahai ingurua eta erakusketa prestatu dizkigu. Honen guztiaren helburua gizartea beste herrien errealitatearekiko sentsibilizatzea da. Nola bizi diren, zein den beraien kultura, ohiturak eta, nola ez, egunerokoan dituzten premiazko beharrak zeintzuk diren ezagutzera ematea.

Amaitzeko, Zumarte Musika Eskolak azaroaren 22an, Santa Zezilikoko kontzertua emango du Udarregi ikastolan.

Egitaraua, beraz, prest dago. Orain zuen txanda iritsi da. Azaldu eta gozatu kulturaz.


NEGUKO TREN ETA AUTOBUS ORDUTEGIA KALERATU BERRI DUGU

Noaua! Kultur Elkarteak ekimen berri bat jarri du martxan. Orain arte aldizkaria izan da gure ikur nagusia. Hamabostero Usurbilgo etxe guztietara iristen den argilpen bakarra da Noaua! hamabostaldia. Herriko albisteak lantzen aitzindariak gara eta gainera argitalpenak izaera irekia du, usurbildar guztien eskura eta zerbitzura dagoen komunikabidea baita. Hala ere, bestelako argitalpenak ere bultzatu ditugu: urteroko egutegia, herriko postalak, "Zubieta, mila urteko herria" liburua, ohar takoa...

Oraingo honetan, ordea, guztiz praktikoa izango den argitalpen berri bat kaleratu dugu: tren eta autobusen neguko ordutegia. Eusko Tren enpresak bi ordutegi independente argitaratzen ditu eta herritar askok biak eraman behar dituzte soinean. Gainera, gure argitalpena oso arina eta praktikoa da, soilik Donostia-Urbil-Usurbil-Zarautz eta Zarautz-Usurbil-Urbil-Donostia ibilbideak jasotzen baititu.

Etxe guztietara banatzeaz gain, beste hainbat lekuetan ere eskuragarri izango duzue argitalpen hau; dendetan, tabernetan, egunkari saltokian,... Oraindik ez baduzu eskuratu, Noaua!ko egoitzan baditugu oraindik batzuk soberan.

Beraz, gustuko baduzu, ez galdu Noaua!k eskaintzen dizun aukera hau.





Aquariumen izan berri dira 5



KATXO! DENORI:
 AQUARIUMEN IZANDU GERA ETA
 TXURI ETA URDI^{IV} MARRAK
 IKUSI DITUGU. ARRAIN
 ASKO ETA BALEAREN
 HEZURRAK. HOR ZEBILEN
 PAKITO IZURDEA ERE
 ITSASOAN SALTOKA.

UDARREGI IKASTOLAKO
 5 URTEKO HAURRAK


Takolo, Pirritx
 eta Porrotxen

Takolo, Pirritx eta
 Porrotx pailazoez
 agur bero bat bidali
 ziguten aurreko
 alean.

Bidali **Noaua!**ra
 pailazoentzat agur
 polit bat eta zorte
 pittin batekin zurea
 izango da kamiseta
 bat.

Ea osatzen duzuen
 Donostiako Kontxan bizi

P _ K _ T _



Lehiaketa !!



Joxean Labaien, 1997ko Santixabelak, Kaleberri

Udal Fototeka

**GOGORATZEN AL ZARETE
ZER PRESTATU ZUTEN
SUKALDARI PROFESIONAL
HAUEK 1997KO
SANTIXABEL EGUNEAN?**

- BABARRUNAK
- MARMITAKOA
- PIPERRAK

**Saria: Abelin Linazasoroaren
"Iraganean galdua" liburua
(Txalaparta argitaletxea).**

Erremedioen txokoa !!

□ Ile erorketa

× Zer egin ile erorketari aurre egiteko?

Aldameneko kuadroan jarri ditugun osagai hauekin guztiakin zumoa egin. Zumo hau egunean aldiz hartu.

Bestalde ere, 100 gr. berro hartu, zukua egin eta buruazala zumo honekin igurtzi eta gero burua garbitu.

Bai zumoa bai berro-zukuarekin buruazala igurztea oso aproposak dira ile erorketa gelditze-ko edo, behintzat, gutxitzeko.

× Prebentziorako zifra eta datuak

Ilea gauza bizia da eta etengabeko berrikuntza-prozesuan dago, baina hegaztiengan ez bezala (hauek lumak bapatean aldatzen baitituzte), giza-kiengan ilearen galera prozesua graduala da. Pertsona helduak, normalean, 100.000 ile-folikulu inguru dauzka buruko ile-larruan (eta horietatik %

88 bat hazkunde-fasean daude, % 11 atsedendian eta % 1 erortze-fasean). Egun bakar batean 100 ile inguru erortzea normalizat har daiteke, gainerako ileak 0,45 milimetro inguru hazten diren bitartean.

Ilea ere zahartu egiten da eta urteak pasatu ahala kopurua, kalitatea eta indarra galdu egiten zaio ileari. Jaioberri batek 1.135 folikulu dituen bitartean, 625era jaisten dira bizitzako hirugarren hamarkadan eta 485era bostgarrenean. Baina burusoiltasuna ez dator galtzen den ile-kopurutik soilik; horren ordez ateratzen dena kalitate eskasekoa izatetik baizik.

Galdutako ilea berreskuratu ez, baina erorketa atzerarazteko modu merke bezain erraza higienea da. Denbora luzez dermatologia klasikoak asko ez garbitzeko esaten bazuen ere, behar-beharrezkoa da txanpu suabe batekin ilea maiz garbitzea. Pazienteak sarritan garbitzearen kontra atera daitezke (ilea garbitzean gehien galtzen dutela konturatzeko baitira), baina erortzen den ile hori lehendik ere hila dago, eta ez du garbitzeak hondatzen; alde-erantziz baino.

Osagaiak

- Perrexila
- eskukada berro
- 3 zurtoin apio
- 4 azenario
- sagar erdia
- Mihilu pixkat



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98



kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

Oharrak

Txerrimunik ordainetan

ETXEBIZITZA

- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. Telf: 943 364469.
- Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13.
- Aginagan duplex bat salgai, 65 metro karratuko solairuko terraza eta garaje handia. 41 milioi pezeta. 943 36 62 60.

SALEROSKETA / GARAJEAK

- Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf: 943 362424
- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf: 656 759 583.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- Txaramuton 30 m²-ko garaje itxia. 26.821 eurotan salgai. Deitu 666 646 847 zenbakira.
- Galtzaragaina elkartearen bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreran). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 ppta. Telf: 687 40 62 09
- Galtzaragainan 20 m²-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77 (arratsetz).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 943 366485.
- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauetz. 943 371447 (Belen).
- Pertsona bat eskaintzen da arratsaldez bi orduz umeak zaintzeko. Telf: 647 220 966 (Mari Karmen).

Lan-eskaintzak

- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia:

943 36 33 58.

- Udarregi ikastolan ikasturte berrirako kirol begiraleak behar dira. Telefonoak: 943 361 216/ 943 370 645.
- Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- Tabernari bat behar da Txurrut tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.
- Tabernari bat behar dugu Antxeta Jatexean lan egiteko. Deitu: 943 370 344.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf: 943 366222.
- Ford Escort bat salgai. SS-AJ, motorra berritua. 100.000 pta edo 601euro. Tf: 943 650619.
- Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- Volkswagen Golf GTI II saltzen dut, SS-AL. 15"llantak, irrati-kargadore Alpine... extrak. 2.000 euro. Telefonoa: 649 322 873.
- Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zenbakira.
- Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.
- Txakurkumeak salgai. 3 hilabeteko setter ingelesak; desparasituak eta bakunatuak. Guraso ehiztariak. 180 euro. Tel: 679 207 156.
- Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Tel.: 943 37 03 59.
- 100 litro esne pilatzeko eta fresko mantentzeko "Etxe-hotz" markako tankea eta behiak jeisteko "Euromilk" markako motorra salgai daude. 943 364 542 (Felix, Nekane).
- Furgoneta Ford Transit saltzen dut. telefonoa: 943 361 115.



Datorren urriaren 26ean gure pinpilipauxak 19 urte egingo ditu. A ze neska puska!! Zorionak Ainar!! Etxekoak.



Pilar, Zorionak!
Urriaren 24an urtebetetze eguna izan zenuen. Ondo izan eta segi horrela!
Etxekoen partez, zorionak!



Zorionak Aitor!
Urriaren 13an 32 urte egin eta azaroaren 23an, berriz, ezkondu egingo zaigu. Umore onarekin jarraitu!



Zorionak Javier!
46 urte egin berri ditu eta oraindik gazte-gazte!
Zorionak eta ondo segi!



Zorionak Zuriñe!
Etxeko prexioxarentzako, datorren urriaren 28an 7 urte beteko ditu. Muxu handi bat aita, ama eta Irunen partez. Gozokiak prestatu, eh!



Zorionak bikote!
Urriaren 26an ezkonduko dira Eva eta Josu. Zorionak familia guztiaren partez eta ea parranda polita egiten dugun!



Zorionak Oihana!
Animo prexioxa, ez gara zutaz ahaztu ezta inoiz ahaztuko ere. Eutsi gogor, ez etsi. Muxu eta besarkada bero bat guztion partez!

Txerrimunik ordainetan - Oharrak,
doaneko zerbitzuak dira.

Agenda

URRIAK 25 - ostirala

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko hilabeteroko ekitaldia Etxerat!-en eskutik. 20:00etan.

URRIAK 27 - igandea

- Ordu aldaketa. Ordubete atzeratu behar da erlojua, 03:00etan 02:00ak izango dira.

- Bianditz-Mendaur-Arantza, mendi ibilaldia Andatza KKE taldeak antolatutik. Irteera, 07:00etan frontoi atzetik. Iraupena 5-6 ordukoa.

URRIAK 28 - astelehena

- Odol ateratzea osasun egoitzan, ohiko ordutegian.

URRIAK 30 - asteazkena

- Aralara alderdiaren aurkezpen-hitzaldia Udal Pleno Aretoan 19:30ean. Hizlariak Juan Martin Elexpuru (Zuzendaritza Batzordeko kidea) eta Patxi Zabaleta (Koordinatzaile Orokorra).

AZAROAK 1 - ostirala

- Eskulangintza Azoka eta Erakustazoka plazan. Antolatzailea: Aitzaga elkarte.

Musikaren Txokoa



Benito Lertxundiren berriena, "Nere ekialdean"

Nahiz eta 1998an Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin "Auhena Sinfonikoa" disko-bilduma kaleratu, "Hitaz oroit" diskoa plazaratu zuenetik (1996) sei urte eman ditu kanta berriak grabatu gabe, beraz azken sei urteotan sortutako 11 abesti berriz osaturiko lana argitaratu du Benito Lertxundik. Horien artean Fernando Pessoren 5 olerki musi-



katu ditu.

Angel Unzu izan du produkzio lanetan lagun eta Jean Phocas teknikariak grabatu du Elkar diskoetxeak Donostian duen estudioan. "Nere ekialdean" diskoarekin Benitok bere musika-ibilbidean gailurra jo duela esan daiteke, inoiz baino sendoago ageri baitzaigu.

Leonard Cohen eta antzeko kantarien eragina nabarmena da, inoiz baino gehiago, Orioko bardoaren berrienean.

Egin kontu

Hilaren 27an, ordu aldaketa

Urriaren 27ko goizaldean erlojuak ordubetez atzeratu beharko ditugu. Hortaz, goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira. Neguko ordutegiak martxoko azken astebukaera arte iraungo du Europako Batasun osoan.

Baina nondik dator ordu aldaketa honen ohitura? Dirudienez, 70ko hamarkadako petrolioaren krisiaren garaian hasi ziren Europa Mendebaldeko herrialdeak neguko eta udako ordutegiak bereizten, energia aurrezteko xedearekin.

Aldaketa hau irailean egiten zen 1990. hamarkadaren erdialderarte.

Azken urteetan, ordea, ordu aldaketa urriaren azken asteburuan eman da.

Hala ere, ordu aldaketak ez du aho batekotasunik sortzen. Sendagile asko kexu dira adinekoek eta haurrek batez ere aldaketak nozitzen dituztela beren ordutegi zorrotzetan.

Europako Batzordeak 1999an egindako txosten batek, ordea, azpimarratu zuen energia aurrezteaz gain %5 gutxi gorabehera-, udaberri, uda eta udazken hasierako arratsalde luze eta argitsuek ondorio onak dituztela pertsonen osasunean eta astialdirako industrian.


ARRAINDEGIA
PELLO
Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL


txirriStra
TABERNA
- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Pintxoak
Kontseju zaharra, 13
Telf: 936 36 04 66


Ileapaindegia
MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura
Zubiaurrenea, 5 - 1.a
Tel.: 943 36 19 51



GONZALEZ
EHORZTETXEA

- Zerbitzu azkarra eta etengabea
- Aseguru konpainia guztiei zebitzuak eskaintzen dizkiegu. Gonzalez ehorztetxera zuzenean deitu.

Muna Lurra, Telf: 943 36
18- 1.A 21 63

USURBI 
GIDARI-ESKOLA



%20ko deskontua matrikulan!

MATRIKULA ZAITEZ!

Kale nagusia, 5
Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71

URTINEA lorategia

Egun osoan zehar zabalik!

Santu Guztien Egunean erramuak,
zentruak, koroak eta landaretan aukera
zabala hemen aurkituko duzu

San Esteban auzoa Telf: 943 36 22 55



USURBILGO OFIZIOAK

ZURE ESKURA DITUZU

URDANTZI

Mugikorra: 649 435475
649 435476
Telf: 943 363370 - 943 361439

**ERRAZKIN
IGELTSERITZA**

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25
☎ 629 420565 - 649 435470

urki-mitxe@euskalnet.net

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Faxaduen konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE

ARANZAZISTROKI

Igeltseritza eta pin-

Juan Jose enea, 6

Kalezar

943 36 05 50 - 606 37

ITURGINTZA

PORTULARRUME

BAINUKO ALTZARIAK



Telf; 943 36 46 37

JAVIER ORBEGOZO

Iturgintza
Gasa



Berokuntza



Iturgintza, Gas eta Berokuntza

**JOSEBA
ARANGU -**

☎ 943 83 00 72

**IÑAKI
LATAILLADE**

Iturgintza, gas eta
berogintza

Mobila: 609 888021

ELEKTRIZITATEA

MIKEL IZAGI-

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

Telf: 943 36 50 95

ESKAIOLAK

**EUGENIO
NORIEGA**

Erdiko kalea, 12

Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

**JOSE ANTONIO
ELORZA**

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70

PINTURAK

RAMON BARCENI-

- . Pikor pintura eta gotele lanak
- . Papereztatze- lanak
- . Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

**FERNANDO
PINTURAK**

Enpapelaketak eta pinturak
orokorrean

Telf: 943 36 60 19- 36 34 60

ARROZTEGIAK

BEREZIARTUA

Egurra eta egurra-aluminioa
LEIHOAK

Aginaga Telf: 943 37 15 71

**JOSE
RAMON**

Neurriko altzariak eta sukaldeak

Errotaberri kalea, 3 Osinalde

☎ 943 36 14 48 -

Faxa: 943 36 69 45

**JOSE MARI
IKUTZA**

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12

Gida honetan azaldu
nahi baduzu, deitu
943 360321 telefo-